



DONOSTIAKO PIRATEN ASTE NAGUSIA 2012

DONOSTIAKO PIRATAK

X. URTEURRENA

HERRITARRENA DELAKO, HAMARGARRENEZ!

2003ko abuztu hartan galdetu izan baligute orduan abiatu genuen ekimena hamar urteren bueltan zertan izango zen, ez genukeen erantzuten jakingo. Erantzunik ere ez genuen orduan. Egia aitortzera, kalatxoririk gabeko aho beltz eta sakona zirudien itsasoan intxaur oskolak libre utzi besterik ez genuen egin. Eta bertan murgildu ginen zientora heltzen ez zen marinel koadrila. Maparen koordenadetan eztabaida ikusgai jarri, eta donostiarren haizea aldeko ote genuen frogatu beharra zegoen. Udal gobernuarekiko urteetako kalapita gainditu eta, hemen, itsaso debekatuan ez murgiltzeari desobedientzia egin.

Sakonagoak ziren gure urak.

Enpresa pribatuek eta markek guztia bereganatu zuten lurraldea ez zela *finis terrae*-a, eta, ortzemugan irlak eta itsasbide berriak bildu genitzakeela frogatu beharra zegoen. Bidaide izan genituen Parte Zaharreko tabernetako zenbait lagun, bidaide hiriko gazte asanbladak. "Esklaboak gara, ala aisia gozatzen dakigu?", galdetu zuen Sokratesek. Denbora librea ez da libre izanen denbora modu askean bizitzen asmatzen ez badugu. Eta belak zabalik ekin genion bidaiari.

Lehen PIRATA GAUAK Letaman gaztetxean. Trinitate plazan besoak airera 2004an; rock gauak. Eta heldu ziren trabak, kateak eta galerak. Baina baita ere anai-arrebarte berriak, kalatxori gehiago hegan eta izaren artetik txilioka, eta nabigazio mapa zehatzagoak. 2005.ean berrogei eragilek baino gehiagok sinatu zuten jai herrikoien aldeko manifestua. Belak beterik aurrera. *Posei-Odón*, bere itsasoaren jaun eta jabe, minbera; sagailoa, berriz, dantza zoroan ezarriz izotz zatiak. Eta piraten ontziek ura branka bularrez jo eta erdibituko dute. Jaia, ingurua, mundua ulertzeko bi era aurrez-aurre; parte-hartzea hitz gakoa.

Traba eta galera gehiago. Umorea eta adar-jotzea, horixe kontsigna 2006ko IRRIKITALDIAn. Herriaren adierazpidea, herriko ironia eta umorea, azken finean, botere kultural bat da. Arma politikoa. 2007arekin iratzarri zen EZKILA kapitaina, XVI. mendeko pirata donostiar gaurkotua. Uharteko loa utzi eta urterik urte gidatuko du Abordatzea. Geldiezina da mugimendua. Herritarren parte-hartzeak egin du traba ezinezko. Lehen musika lehiaketa martxan da *Gazte Zulo* aldizkariaren laguntzarekin.

2008an enbata berriro, urruneko ziegetan pirata gehiago. Bira istriborrera! Ikusezin nahi gintuzten hedabideen behe-lainotik harago, izarrak agertuko dira gaueko zeruan. *Gu ere bagara Donostia!* Abordatzearen oihua. 2009ko eztabaidak: pluraltasuna eta erakundeetan ordezkatuak izatearen aldeko apustua, edo eta ezarrita dagoen ereduari hegemonia borrokatu eta alternatiba gisa aurkeztea? Bietan abant, eraginkortasunak elkar osatzean datza-eta.

Burdinazko ditxoan lotzeko jaurti zen soka brankatik 2010ean. Baina inolaz ere ez moilako ur barean usteltzeko; ez da hori helburua, ur sakonagoen peskizan jarraitzen dugu. Eta hala ere, ongi etorri LA FLAMENKAra! hegaztiak itsasoan pausatzeko zuhaitzik ez dutelako. Abordatzea egitarau ofizialean: olagarroak, trumoiak eta eztabaidak. Piratak piratakerietara: dinamika asoziatiboa lege bakartzat hartu, eta inongo gobernu despotikoren menera egon beharrik gabe, soilik herritarren borondatea gorpuztuz, jai herrikoien aldeko mugimendua espazioak irabazten. Zero Zabor filosofiak kutsatzen gaitu, betetzeko dugun erronka.

2011. *Odon! Odon! Posei-Odon!...hor konpon!* Eta festarik behar bada, orain bai, **boga** Donostiyan! Parte-hartzea izan da garapen honen guztiaren oinarria, jaiaren paisaian modu ikusgarrian iltzatu diren Abordatzeak eta Irrikitaldiak frogatu dutenez. Hau da bidea, Aste Nagusi berri eta berritzaile baten aurrerabidea. Eta poztekoa da udal

gobernu berriak norabide berean elkarlanean aritzeko erakutsi duen asmoa. Herritarrena delako egingo dugu hamargarrena. Abante librean jarrai dezan duela hamar urte abiatu zenak. BETI ABANT!

LELOA: lotu guregana eta aska ditzagun amarrak!

2012. urtea iritsi da, hamargarren urteurrena Donostiako Piraten mugimendu herrikoiak. Gogoeta eta aurrera begira gure lurraldeak zabal ditzagun lan egiteko une aproposa. Baina Aste Nagusia gainean dugu, eta aurrerantzean ere egingo dugu balorazio, ideia bilketa eta bidaide berriengana hurbiltzeko saiorik. Bitartean, gozatu aurtengo Aste Nagusiaz. Aurtengo leloa: Lotu guregana eta aska ditzagun amarrak!

Leloarekin aurten Piraton barne antolakuntza aldaketa prozesuari egin nahi izan diogu erreferentzia. Urte hauetan jende asko hurbildu da Piraten taldera, eta hainbatek eratutako kolektiboa arduratu da Aste Nagusiko programa alternatibo eta parte hartzaile osoa antolatzeaz.

Hamar urtean ikaragarri hazi da proiektua, eta guzti honek sortu duen ilusioari eta lanari hobeto erantzuteko, mugimendu zabal eta anitz bat eraikitzen jarri gara buru-belarri. Hainbat alorretan lanean ariko diren taldeek dinamizatuko dute mugimendua. Talde hauei *Kofradia* deitu diegu, eta lelo honek gonbidapen bat izan nahi du Donostiako Piraten jai ereduarekin bat egin eta taldean parte hartzera, lotsak galdu, ideia berriak proposatu eta denon artean, urrunago iritsi gaitzen. Hori da gure asmo eta helburua. Goazen bada, denok elkarrekin barku parekide eta euskaldun honen amarrak askatu eta Donostia osoan barrena jai eredu herrikoi eta parte hartzailea zabaltzera!

KARTELA:

Lotu guregana eta aska ditzagun amarrak!

2012 **Abuztua**

Piraten Aste Nagusia

La Flamenkan
(Laurosteko kantuan)

<p>Abuztuaren 11. eta 19. egunero kontzertuak, ekitaldiak eta Nautiko aldean Dj gunea</p> <p>LARUNBATA 11. TXUPINAZO GAUA <small>21:30 Txupinazoa</small></p> <p>IGANDEA 12. ERROMERIA EGUNA <small>11:00 Urigull-era igoera, erromeria</small></p> <p>ASTELEHENA 13. GAZTE EGUNA <small>Abordatzera! 17:00 Abordaiak <small>(izen emateko aboardaia@gmail.com hitzartzen izena - partetide kopurua - auzoa)</small></small></p>	<p>ASTEARTEA 14. FOLK EGUNA <small>12:00 Kantu Jira</small></p> <p>ASTEAZKENA 15. JOLASEN EGUNA <small>16:30 Koadrilen arteko jolasak <small>(partee burutzeko piratendunak@gmail.com, izena - hitzartze-azua)</small></small></p> <p>OSTEGUNA 16. UMEEN EGUNA <small>17:30 Abordaiak txikia</small></p> <p>OSTIRALA 17. KOADRILEN EGUNA <small>12:30 Koadrilen arteko Pintxo hotzen lehiaketa</small></p> <p>IGANDEA 19. IRRIKITALDIA <small>14:00 Bazkaria 17:00 Irrikitaldia. Boulevardetik abiatuta.</small></p>
--	---

Donostia Piraten Aste Nagusia gaurerako salagintza eta oihartzu erreak

www.donostiapirata.info @dostiapirata facebook.com/donostiakopiratak

Ezkila Kapitaina eta Matti:

Aurten bi izango dira Aste Nagusi Piratak aurkeztuko dituen lagunak, eta hemen dago aurtengo berrikuntzetako bat: Ezkila Kapitaina, eta Matti.

Batetik, **Ezkila** da Piraten Aste Nagusiaren kapitaina, eta bera da mugimendu osoak bultzatzen dituen balore finkoak pertsonifikatzen dituen figura: Euskalduna, feminista, Donostiako eta Euskal Herriko jai herrikoi eta partehartzaileen bultzatzailea, eta ama lurraren maitalea. Urte osoa Santa klara uhartean egiten du gotortuta, Donostiari begirik kendu gabe. Halere, urtero Aste Nagusia heltzen denean, Donostiara etortzen da bere baloreak bultzatu eta herriaren jaia euskaldunak babestera.

Ezkila Kapitaina ez da hutsetik asmatutako pertsonaia. XVI. Mendeko Pedro de Agirre izeneko kortsario donostiarrean oinarritzen da. *Campanario* ezizenez ezagutzen zuten itsasoetan eta lurrean.

Bost urte dira Ezkila guren artean denetik, eta aurten berritasun bat izango du figura honek.

Hamar urte eta gero, Donostiako Piratak mugimendu izatera pasa da. Mugimendu osoa antolatzeko modu berrien beharra ikusi genuen, eta urtarrilean hasitako prozesuan *Kofradiak* izeneko taldeetan antolatzea erabaki genuen. Kofradia hauek datozen hilabeteetan antolatzen eta sendotzen joango gara. Momentuz kofradia batek bere burua aurkeztu du: Eskifaia Gazte Kofradiak. Gazteak indartsu datoz eta eurak izan dira orain arte motorra. Kofradiek zehaztuko dute hemendik aurrera Piraton norabidea. Horregatik, urtero kofradia bateko kide batek Ezkila kapitaina pertsonifikatzeko ohorea izango du. Aurten, Eskifaia gazte kofradia izango da jai herrikoien aldarria Donostia osoan zabalduko duena.

Beste berrikuntza **Matti** izango da, Ezkilaren aspaldiko laguna.

Ezkila kapitainak aurrez aipatu ditugun eta urtero mantenduko diren baloreak ordezkatzeko dituen bezala, hemendik aurrera, Mattik urtero ideia eta balore ezberdin bat ordezkatzeko du. Gure ustez interesgarriak diren ekimenak edo baloreak bultzatu dituzten eragile, elkarte edo taldeen ordezkaria izango da Matti.

Lehenengo edizio honetan, Martuteneko bizilagunak omendu nahi izan ditugu. Iazko uholdeen ondoren izan zuten jarrera txalotu nahi izan dugu honekin. Auzolanean, elkar laguntzen, aurrera egin zuten asko egun batetik bestera egoera oso zailean geratu ziren une zailean. Aurten beraz, Matti ezaugarri horiek zabaltzen ibiliko da Aste Nagusiko ekitaldietan.

Matti izeneko figura hau ere ez da hutsetik asmatua. Martin de Villafranca Donostiako kapitainari egindako keinu txikia da. Pertsona hau, 1615. urtean Islandian bidegabeki erail zuten.

Garaiko dokumentuen arabera, 1615a urte zaila izan zen Islandaian, uda amaitu zen arte kostaldeak izoztuta izan baitzituzten, eta horregatik, azienda asko hil zitzairen. Udaren erdialdera Euskal Herriko hiru itsasontzi baleazale Islandia ipar mendebaldeko erpinetara batera heldu ziren Reykjarfjörður-era hain zuten. Islandiarrek eta euskaldunek aurretik hainbat aldiz egin zuten moduan, akordioa egin zuten irabaziekin bi parteak atera zitezkeen irabazien. Irailaren amaieran itsasontziak berriz itsasora jotzeko prest zeudela, izugarritzko enbatak itsasontziak amildegietara bultzatu zituen eta erabat suntsitu zituen. Hiru ontziak hondoratu egin ziren, eta hainbat arrantzale hil zen egun hartan. Eskifaiaren gehiengoa, dena den, — laurogei bat lagun— bizirik atera zen.

Pedro Agirre eta Esteban Telleria kapitainen gizonen Patreksfjörður eskualdeko Vatneyri herrixkan eman zuten negua eta hurrengo urtean itzuli ziren etxera. Martin de Villafrancak zuzendutako eskifaia, berriz, bitan banandu zen: talde batek norabide bat hartu zuen (Ísafjarðardjúp fiordo alderantz) eta besteak lehendabizikoz Bolungarvíkera eta gero Þingeyrirantz jo zuen. 1615eko urriaren 13an Martin Villafrancakoa, kapitain donostiarra, eta bere taldekideak ziren beste hamazazpi lagun Ísafjarðardjúpeko Æðey eta Sandeyrin herrixketan erail zituzten, dokumentuek frogatzen dutenez. Urriaren 5ean eskifaiaren beste zatia eraso zuten, 13 pertsona hilez. Bat baino ez zen bizirik atera.

Hilketaren erabakia Ögur herriko Ari Magnússon agintariak hartu zuen, 1615eko urriaren eta 1616ko urtarrilaren artean. Bere itsasontziak urperatu eta gero, 1281eko Islandiar kodea hautsi zutela eta kriminal

izendatu zituzten. Zigor bakarra heriotza zen, eta hala hil zituzten bertan. Ondoren, hainbat intelektual Islandiarrek idatzi izan dute euskal marinel haiena heriotza bidegabea izan zela.

APLIKAZIOA: Donostiako piratak



Aste Nagusirako egitarau oparoa edozein mugikor eta tabletetatik kontsultatzeko aplikazioa sortu dugu. Edonork, edonon dagoela ere, egitarauaren berri izan, epea amaitu den arren abordaian izen emateko aukera izan, edo egunean bertan izandako ekimenen argazkiak kontsultatu ahal izango ditu. www.izanpirata.info webgunetik jaisteko aukera dago eta Donostiako piratak izena du aplikazioak.

Kaiko La Flamenka gunean, Nautikoan eta Trinitate plazan ekitaldiak izango dira Aste Nagusi osoan. Bertan kontzertu, jolas, afari eta beste izango da. Informazio asko dugu zabaltzeko aurten piraten artean. 11 ekimen eta txoko ugari. Horregatik, pirata guztiei laguntza eskatu nahi diegu egitarauaren berri zabaltzeko. Horretarako, tresna aproposa izango dugu aurrerantzean aplikazio hau.

Egitarauko ekimen bat aukeratuz honi buruzko informazio orokorra topatuko du erabiltzaileak: Non, noiz eta non den. Baina horrez gain, ekimenak lagunekin partekatzeko aukera ere ematen digu aplikazioak, sare sozialetan informazioa zabaltzeko aukera, besteak beste.

Atal ezberdinetan banatu ditugu ekimenak bilaketa errazagoa izan dadin: musika egitaraua dugu alde batetik (Portuko, Nautikoko eta Trinitate Plazako programarekin besteak beste). Bestetik haurren egitaraua ere kontsultatu ahal izango da, urtetik urtera gero eta ekimen gehiago antolatzen ditugulako haurrei eskeiniak. Elkarte ezberdinekin elkarlanean aurten bereziki egitarau zabala eskaini nahi izan diegu pirata txikienei.

Eta nola ahaztu aurten sortu den Eskifaia Gazte Kofradia! Gazteek urteak daramatzate gazteei zuzenduriko ekimenak antolatzen, aste osoko egitarauak antolatu dituzte azken urteetan, eta aurten ere aste guztian ondo pasatzeko asmoz datozkigu koadrilak! Aplikazioko atal honetan, jolasetan parte hartzeko izena emateko aukera izango da.

Eta dagoeneko Donostiako Aste Nagusiko ikur bilakatu den Abordaia dugu aplikazioko beste atal nagusi bat. Izen emateko epea formalki amaitu den arren, aplikazioa sustatu aldera, oraindik izen eman nahi dutenek aukera izango dute abuztuaren 7ra arte aplikazioaren bitartez izen emateko. Beraz, badakizue! Deskargatu aplikazioa eta oraindik ez baduzue Abordaian izena eman, egizue orain!

Azkenik, argazki galeriak ere izango dira. Hauetan ekimenak nola doazen ikusi eta gunean ze giro egon den jasotzeko aukera izango duzue.

Esan bezala, izanpirata.info webgunetik zuzenean deskargatzeko aukera duzue.

*momentuz android sistemarentzat dago erabilgarri, iphone eta ipad-entzat ere sortu dugu aplikazioa, baina euren erantzunaren zai jarraitzen dugu. Espero dugu aste honetarako erabilgarri egotea.

EGITARAUA :

LARUNBATA 11. txupinazo gaua. (jantzi pirataz!)

21:30 Txupinazoa

22:00 Afariak Trinitate plazan.

22:00 Kantu herrikoiak

02:00 3gabe2

23:00 NiMu + PRIMO “hip-hop, r&b, bass, house, uk, funky y buena mierda en general”

IGANDEA 12. ERROMERIA EGUNA (Urgullen, El Matxon)

10:00 Motor erakusketa MotoVespa Club Valeren eskutik.
(gipuzkoa plazan)

11:00 PIRATEN GUNETIK irteera Urgullera, Igeldoko TRIKITILARIEN laguntzarekin.



12:00 KARAOKEA
12:30 BAZEN BEHIN
KLOWN ANTZERKI
TALDEA "Maria
Macossi" antzezlan
13:30 BERTSO SAIOA
14:30 BAZKARI
HERRIKOIA: Bakoitzak
nahi duena ekar dezala!
16:00 JOLASAK GURASO

eta UMEENTZAT

16:30 Gazteak trikitilariekin erromeriara igoera! La flamenkatik abiatuta.

17:00 ERROMERIA ITZARTU taldearekin.

19:00 Urgulletik jeitsiera PIRATEN GUNERA, Igeldoko Trikitilarien laguntzaz.

20:30 Afariak Trinitate plazan.

21:00 Bertsolariak. Jon Maia eta Unai Gaztelumendi

23:00 Trakets

23:00 TRIFULCA POSSE (DZ, SYR, PATA) "hip&roll" + mikro irekia

ASTELEHENA 13. GAZTE EGUNA

08:00 Baltzen muntaketen hasiera arranplan

14:00 BAZKARIA. Zuloaga plazan

17:00 Abordatzera! (izen emateko xehetasunak www.izanpirata.info)

19:00 TXARANGAREKIN GUNERANTZ!

20:30 Afariak Trinitate plazan.

21:00 Bakarlarria

23:00 Ze esatek! + The Real McKenzies

23:00 LE BUKOWSKI DJ'S "etxeko uzta party"

ASTEARTEA 14. Folk eguna

11:00 Iruzun taldeak antolatutako tailerra

12:00 Kantujira La
flamenkatik

17:00 Altxorraren bila
(auskalo taldearen
eskutik)

18:00 Herriko dantzak

18:30 txokolatada

20:00 piraten bertso
asanblada

20:30 Afariak Trinitate
plazan.

21:00 Trikitilariak

21:30 MASKARRADArekin poteoa

23:00 Skakeitan + Bad Manners

23:00 **RUDE HI-FI eta STEPI SELEKTAH (Barriobeatz-Bad
Sound System**



ASTEAZKENA 15. Jolasen eguna

11:00 Haurrentzat Herri kirolak (Aratz taldearen eskutik)

16:00 koadrilen arteko jolasak.

17:00 Haurrentzat Tailerrak (Urrats taldearen eskutik)

18:30 txokolatada

20:30 Elektrotxarangarekin poteoa

23:00 Exaixu + Tximeleta

23:00 **DJ NEIR (MORE JAIA) “dancehall, dub step, jungle eta
drum&bass”**

OSTEGUNA 16. Umeen eguna

10:30 Jolasak kaian barrena pirata mozorroa prestatzeko.

12:30 erraldoi eta buruhandiak

13:15 entzierro txikia, Ikatz kaletik
abiatuta guneraino.

13:30 haur bazkaria

15:30 Klown ikuskizuna

16:00 Kermes jolas erraldoia

17:30 Abordaia Txikia!!



18:00 Furgo poteo pirata gunetik abiatuta

18:30 txokolatada Kresala elkartearen eskutik + haurrentzat ikuskizuna.

19:15 Eskuz binakako txapelketa Trinitate plazan. Groseko auzoa - Mikel Goñiren aurka.

21:00 KDF (kantu, dantza eta farra)

21:30 Afariak Trinitate plazan.

21:30 Bertso musikatua

23:00 DPML´12: On + Margot + Tacumah Reggae band

23:00 **KIKI SOUND (KAMIKAZE) “roots, reggae, dancehall”**

OSTIRALA 17. Koadrilen eguna. (mozorro onenari eta bandera orijinalenari sariak)

11:30 Jolasak arranplan



13:00 Koadrilen arteko pintxo hottzen lehiaketa (tipula, piper berdea, urdaiazpikoa, tomatea) sariak: suhazin afaria eta a fuego negron pintxo

14:00 Koadrilen bazkari

herrikoia.

15:30 Bazkalostek kafea

17:00 Sorpresa!

17:00 Pirata Koxkorrentzat jolasak (12-17 urte): futbolin erraldoia, graffitti tailerra, etab.

19:00 **KOADRILEN JAITSIERA** Pasai txarangarekin. jantzi pirataz!

20:30 Afariak Trinitate plazan.

21:00 Edorta eta Boti euskal kantariak

23:00 Iheskide + Xalbala + Karaokea

23:00 **R DE RUMBA (VIOLADORES DEL VERSO) “funk, hip-hop”**

LARUNBATA 18.

23:00 Governors + Obrint pas

20:30 Afariak Trinitate plazan.

21:00 Imanol Karballo bakarlarria

IGANDEA 19. Irrikitaldia

14:00 Bazkaria

17:00 Irrikitaldia. Boulevardetik abiatuta.



HAURREN EGITARAUA: Portaletasetik nautikorantz doan eremuan izango dira ia ekimen guztiak.

GAZTEEN EGITARAUA: GEHIENAK La Flamenka EDO BERTATIK ABIATUTA DIRA.

AFARI GIROTUAK: GAUERO TRINITATE PLAZAN. SAHIESKI ETA OILASKOAK.

KONTZERTUAK: KAIMINGAINTXO PLAZA, La flamenka gunean

DJ GUNEA: NAUTIKOAN



donostiakopiratak

Bozera mailea / Portavoz: 655 716 253 (Aratz)
Komunikazioa / Comunicación: 665 711 355 (Maddi)

izanpirata@gmail.com | www.izanpirata.info

twitter: [@izanpirata](https://twitter.com/izanpirata)

facebook: Donostiako Piratak